

Claudia Vázquez Cruz


Zoke etniako Ocozocoautla herrikoa, Chiapaseko Emakumeen Eskubideen Zentroko (CDMCH) koordinatzailea da



CDMCHan onartzen dugu, emakume bezala autodeterminatzeko, desparekotasun mota guztien aurka borrokatu behar dugula. Ezin gara genero-desberdintasunaren aurka soilik borrokatu, emakume bezala ditugun beste baldintzak kontuan hartu gabe, hala nola, klase- edo etnia-desparekotasunak.

Hala, borroka-prozesu bat sortu dugu, emakumeak lurra edukitzetik baztertzearen aurkakoa. Gaur egun ditugun politika horien guztien aurrean, bazterketa prozesu hori sakondu dela ikusten dugu eta hori bizi garen sistema patriarkalarekin lotuta dagoela.

Zentzu horretan, 2012an, ikerketa bat egin genuen eta konturatu ginen hainbat estatutu eta arauditan emakumeei buruzko estereotipoak sakontzen dituzten kultura-ereduak errepikatzen zirela. Kasu horietako bat, oso ezaguna dena, Frontera Comalapan dagoen Bellavista del Norteko ejidoarena izan zen. Bertako arauen arabera, ejidoaz kanpoko gizonekin ezkontzen ziren emakumeak ejidotik kanporatuak izan behar ziren. Zenbait emakume horren aurka borrokatu ziren eta ejidoko araudiaren zati bat baliorik gabe uztea lortu zuten. Hala ere, kultura-mailan hainbat gauza aldatu beharra dago. Hain zuzen, emakumeen eskubideak aintzat hartzeaz ari gara.



Komunitateek dituzten usadioak eta ohiturak indarkeria gehiago sortzen dute eta emakumeen parte-hartzea mugatzea edo zenbait eskubide urratzea eragiten dute. Beraz, gizarte prozesua aldatu behar da, sistema patriarkalaren aurka jarritz. Horrek esan nahi du kulturalki sartu diguten guztia baztertu behar dugula: beldurra, errua... Emakumeak bizitzaren iraunkortasuna gauzatzen dute; ez da soilik familia mantentzea, baizik eta komunitate osoa. Dagoeneko ez dugu bizitza erreproduzitzeko eginkizuna bakarrik, bizitza mantentzen ari gara ere, eta hori ez da aintzat hartzen.

Hala, 2015ean, geure prozesua abiatu genuen Lurra eta Lurralde Defendatzeko Mugimendua sortuz. Bi estrategia edukitzea garrantzitsua zela erabaki genuen. Horietako bat da gure estrategia politikoa. Horrek gure ejidoetan eta komunitateetan burutu beharko genukeen kontzientziazio- eta antolakuntza-prozesua hartzen du, aldaketei adi egoteko eta zer egin jakiteko. Beste alde batetik proposamen legal bat dugu. Horrek oinarrietatik bultzatzeko aukera eman beharko digu baina baita aldaketa estruktural baten aldeko apustua egiteko. Gaur, familiarteko erabilera eta gozamenari buruzko proposamena deitzen diogu horri.


Emakumeak autoritate bezala aintzat hartzea nahi dugu, emakumeek karguak hartzeko aukera izatea. Emakume batek lurra eduki ahal izateko alarguna izan behar du eta semerik ez izan. Hori legitimotzat hartzen da eta, hortaz, horrekin hausteko beharrezkoa da egitura osoa haustea, maila guztietan. Zentzu horretan, erabakiak hartzeko eremuetan sartzea, hala nola batzarretan, indartuko luke sortzen ari diren mehatxuen aurka borrokatzeko antolakuntza-prozesua. Batzarrerara sartzean, emakumeak honako hauetarako erreferente bilakatuko lirateke: beldurrik ez izateko, beste eremu batzuetara sartzeko borrokatzeko eta eremu guztietan parte-hartze politiko aktiboa izateko.

Lurra edukitzeko dugun eskubidearen alde borrokatzeko, emakume bezala dugun eskubide guztiak aintzat hartuak izan daitezen borrokatu behar dugu. Izan ere, gure eskubide bat urratzen den neurrian emakume izateko eta subjektu bezala aintzat hartuak izateko dugun eskubidea urratzen zaigu.

Lurraren titular izatean edo euren lurraldearen alde borrokatzean, emakumeek erasoak, xaxatzeak eta estigmatizazioak pairatzen dituzte. Hainbatek ejidotik irtetea ere erabaki dute borrokatzen jarraitu ahal izateko. Emakume batek lurra edukitzeko eskubideagatik borrokatu nahi duenean, bere erasotzaile zuzenari aurre egin behar dio eta, gainera, indarkeria komunitario eta estruktural guztiari ere aurre egin behar dio. Askok hori egitea erabaki dute.

Halaber, pribatizazio-prozesuaren aurka ere lan egiten dugu, gure komunitate eta ejidoetan ezartzen ari diren ziurtatze-prozesuen bitartez. Jabetza soziala eta nekazarion nortasuna babesteko borrokatzen dugu. Hala, gure elikadura burujabetza babestu nahi dugu, bertako haziak berreskuratu; arbasoen ezagutza guztiak eta sistemak kendu nahi digun guztia berreskuratu.

Gainera, indarkeria feminizidaren aurka borrokatzen gara. Izan ere, bai programen eta bai ohituren euren bitartez matxismoa indartzen ari da, indarkeria sortuz eta feminizidioak ere eraginez.





Borrokatzen ziren hainbat emakume hil dituzte azkenean. Zentzum horretan, indarkeria feminizida latentea pairatzen dugula onartua izan dadin borrokatzen gara. Estatistikak erakusten digu egunetik egunera feminizidioek gora egiten dutela, indarkeria gero eta handiagoa dela eta zigorgabetasun testuinguru batean bizi garela.

Gainera, feminizidio-kasu gehienetan aske uzten dituzte feminizidak. Sistema patriarkal honek emakume bezala apaldu nahi gaitu, beldur- eta paralizazio-prozesuetan kokatu, gure eskubideak exijitzen eta aldarrikatzen jarrai ez dezagun.

Nik hainbat emakumeren prozesuak ezagutzeko aukera izan dut, haiengan dagoen indarra. Horrek indartzen gaitu, defendatzaile bezala izaten ditugun zailtasunak gorabehera. Emakume bat bere buruari galderak egiten dizkionean eta kultura-eredu horiekin hausten hasten denean, pentsatzen duzu: “merezi izan du”. Gauza bera emakume bat salatzerantz ausartzen denean edo lagundu ditugun emakumeak defendatzaile bihurtzen direnean eta beste prozesu batzuk laguntzen dituztenean.

Munstro horren aurka, harrapakaritzaren aurka borrokatzeko berdintzat hartzen hasi behar dugu elkar. Gizonek eta emakumeek eskubide berdinak ditugula onartzetik abiatu behar dugu. Ikuspegi indibidual batetik begiratzeari utzi eta kolektibotik begiratzen hasi behar dugu. Azpimarratu nahi dugu familia-eremutik hasi behar dugula hurrengo mailan eragin ahal izateko, hau da, komunitatean. Kolektibitate-prozesu hori benetan indartu nahi dugu, komunalitate-espiritua berreskuratu, baita komunitateetan ere, hori baita bizi ari garen prozesu honen aurka borrokatzeko modu bakarra.

Garrantzitsua da beste mundu bat sortzea, desberdintasunak errespetatzen dituen eta berdintasuna eraikitzen duena, non emakumeek ez dugun ezkutatu behar, ezta errudun sentitu ere, baizik eta libre izan, gure eskubideak askatasunez erabiliz.

